

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **2008/12/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, pilei, metagailuei eta haien hondakinei buruzko 2006/66/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/12/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por la que se modifica la Directiva 2006/66/CE relativa a las pilas y acumuladores y a los residuos de pilas y acumuladores, por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 76 de 19/03/2008)

2008/12/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2008ko martxoaren 11koa,

**pilei, metagailuei eta haien hondakinei buruzko 2006/66/EE Zuzentaraua aldatzen duena,
Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenei dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

elementu batzuen bidez egintza hori osatzea.

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki,
haren 175. artikulua 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Irizpena²
aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin ostean,

Tratatuaren³ 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

- (1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/66/EE Zuzentarauak⁴ ezartzen duenez, neurri jakin batzuk Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren⁵ arabera hartu behar dira. Erabaki horrek Batzordeak esleitu zaizkion egikaritze-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen ditu.
- (2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen. Erabaki horrek neurri orokorrak hartzeko kontrolpeko arautze-prozedura jarri zuen abian. Neurri horien helburua Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarrizko egintzetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea da, eta, beharrezkoa izanez gero, elementu horietako batzuk ezabatzea edo funtsezkoak ez diren beste

- (3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari buruz hartutako Adierazpenaren⁶ arabera, kontrolpeko arautze-prozedura Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedurari jarraituz hartu diren eta indarrean dauden egintzetan aplikagarria izan dadin, egintza horiek prozedura aplikagarrien arabera egokitu behar dira.

- (4) Batzordeari eskumenak ematea komeni da, III. eranskina egoki dezan eta pilen eta metagailuen esportazioari eta etiketatzeari buruzko arau xehatuak hartu eta berrikus ditzan. Irispide orokorreko neurriak direnez eta 2006/66/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuez osatzea dutenez xede, 1999/468/EE Zuzentaruaren 5 bis artikuluan aurreikusita dauden kontrolpeko arautze-prozeduren arabera hartu behar dira.

- (5) Hortaz, bidezkoa da 2006/66/EE Zuzentaruak aldatzea.

- (6) Zuzentaru honen bidez 2006/66/EE Zuzentaruaren egin diren aldaketak teknikoak direnez eta Komitearen prozedurari bakarrik eragiten diotenez, estatu kideek ez dute zertan haiek bereganatu. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horri buruzko xedapenik ezartzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aldaketak

Aldaketa hauek egin zaizkio 2006/66/EE zuzentaruari:

²EO C 175, 2007-07-27koa, 57. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko urriaren 24koa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko otsailaren 14koa.

⁴ EBEO L 266, 2006-09-26koa, 1. or.

⁵ EO L 184, 1999-07-17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak —EBEO L 200, 2006-07-22koa, 11. or.— aldatu zuen.

⁶ C 255 EO, 2006-10-21ekoa, 1. or.

zailtasunei aurre egiteko.

- 1) Hamargarren artikuluan, 4. paragrafoa testu honek ordezkatu du:

«4. 24. artikuluko 2. paragrafoan jasotako arautze-prozedurari jarraiki, aldi baterako neurriak hartu ahal izango dira, estatu kideek, beren berariazko egoera nazionalak direla medio, 2. paragrafoko baldintzak betetzeko dituzten

- 2) Hamabigarren artikuluan, testu hau jarri da, 6. paragrafoko lehen esaldiaren ordezkari:

«6. III. eranskina aldatzeko edo osatzeko aukera izango da, bilakaera zientifikoa eta teknikoa kontuan hartzeko. Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzeko hartuak, 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 3) Hamabosgarren artikuluan, testu honek ordezkatu du 3. paragrafoa:

«3. Artikulu hau aplikatzeko arau xehatuak ezarriko dira; bereziki, 2. paragrafoan aipatzen diren baldintza baliokideak ebaluatzeko irizpideak. Neurri horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 4) Testu hau jarriko da 17. artikuluan ordez:

«17. artikulua

Erregistroa

Ekoinerentzia guztiak erregistratuta daudela bermatuko dute estatu kideek. Erregistroak prozedura-baldintza berberak bete beharko ditu estatu kide guztietan. Erregistroaren baldintza horiek, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 5) Hogeita batgarren artikulua honela aldatu da:

- a) Honako testu hau jarri da 2. paragrafoaren ordezkari:

«2. Estatu kideek arduratu behar dute pila eta metagailu guztietan haien kapazitatea adierazita egoteaz —eramangarrietan nahiz automobilgintzakoetan—, 2009ko irailaren 26rako, beranduenez. Ondo ikusteko eta

2007ko irailaren 26an, beranduenez, metodologia bat ezarriko da, kalkulatzeko zenbat pila eta metagailu eramangarri saltzen zaizkien, urtean, azken erabiltzaileei. Neurri hori, zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea duenak xede, 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

irakurtzeko moduan egon beharko du adierazita, eta ez ezabatzen moduan. Beranduenez 2009ko martxoaren 26an, baldintza hori aplikatzeko arau xehatuak ezarriko dira, baita kapazitatea eta erabilera egokia zehazteko metodo bateratuak ere. Neurri horiek, Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- b) Zazpigarren paragrafoko testuaren ordezkari, honako hau jarri da:

«7. Artikulu honek araututako etiketatze-baldintzetan salbuespenak eman ahal izango dira. Neurri horiek, Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta osatzea dutenak xede, 24. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusita dagoen kontrolpeko arautze-prozeduraren arabera hartuko dira».

- 3) Hogeita laugarren artikuluan, testu honek ordezkatu du 3. paragrafoa:

«3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta 8. artikuluan xedaturikoa ere errespetatuko da.

2. artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean zuzentarau hau.

3. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean
Presidentea
J. LENARČIČ